

ESKORIATZAKO HERRIGUNEKO INFORMAZIOA

San Pedro Eliza

XVIII. mendearen bukaeran eraiki zen Mexikotik bidalitako diruarekin. Barroko estilokoa da eta aipatzekoak ditu dorrea eta korupean dagoen Kristoren eskultura. 1991n berriztatu egin zen.



Gaztañadui edo Ganuza etxea (Arizmendi ikastola)

San Pedro elizaren aurrean kokatuta dagoen etxe honi buruzko aipamen zaharrenak XVI. mendeko idatzietan agertzen dira. 1730. urtean Francisco de Gastañadui jaunak, Filipinasko Casamarca probintziako kapitain jeneralak, erosi zuen.



Udaletxea

Gaur egungo udaletxea XIX. mendekoa da. Harlanduz egindako eraikuntza xumea da eta aurreko aldea hiru arkurekin osaturik dago. Bere ondoan, Hidalga kalearen 4an, dagoen eraikina izan zen honen aurreko udaletxea.



Zaldibegotia palazioa (Kultur Etxea)

Pedro Zalbidegoitiak aginduta eraiki zen (parrokia eraikitzeko dirua ere berak eman zuen). XVIII. mendekoa da eta Amerikako merkataritzarekin irabazitako diruarekin Gipuzkoan egin ziren jauretxeen tradizioan sartzen da. Berriztatu ondoren udal zerbitzuetarako erabiltzen da.



Eskoriatzako Alde Zaharra

Alberka zahar:

Gaur egun labaderoa dena lehen alberka zen. Zaldiak eta animaliak ura edan eta atsedena hartzeko balio zuena, alboko etxea POSTA etxea zen.

1789.urtean, Alberka zaharreko garbitegia egiteko erabakia hartu zen eta, akordioen artean, oraingo Parrokiaren planoetan zeuden sarrerako zazpi arkuen bezalako beste bat Itxurritzarren jartzea erabaki zuten.

Iturri zahar:

Itxurritzarreko Iturria 1.712.urtekoa da eta haseira batean ur minerala bakarrik izango zuen. Garai hartako etxeoandreek ibaira edo errekarara jo behar izaten zuten ur bila, iturriak oso aparte zeudelako. Hori dela eta, Itxurritzarren ere ur geza jartzea erabaki zuen Kontseiluak, Burdiñkruzetik hartuta. Iturri honek, ur mineral eta geza zituenez, gorabehera haundiak nozitu behar izan zituen, bidean ur biak nahasten zirelako.

Horma zahar/Muru zahar:

Alberka zaharretik zubi zaharreraino doan parajea da.



Zubi zahar:

Harrien itxura eta zabaleragatik baliteke zubia Erromatar (V-XV) garaikoa izatea.

Zubi hau, kokapenagatik, oso garrantzitsua izan zen, aurrera jarraituz gero, San Asensio eta Kruzetara iritsiko liratekelako eta, beraz, Arabara.

Elorretako errota

Bolibar errearen alboan kokatzen den errota, Eskoriatzatik Bolibarrerako bidean, hain zuzen ere.

Bolibarko baserritarrak beraien zakuaz bertara gerturatzen ziren eta errotaria arduratuko zen hauek eramandakoa ehotzeaz. Errotaren azken jabea, Ambrosio Abasolo izan zen eta errotak, azkenekoz, 1962an erabili ziren, aurrerantzean, etxeok bakarrik erabiliko zituzten. Bi errotak osatzen zuten Elorreta eta artoa, garia eta pentsua ehotzen zituzten.

Bertara gerturatuz gero, garai hartako errotaren elementuak ezagutzeko aukera izango duzu eta martxan ikusteko aukera, baina horretarako ezinbestekoa da Ibarraundi Museoarekin harremanetan jartzea.

